Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

XML ETA SII FITXATEGIAK KUDEATZEKO EGUNGO SISTEMAREN MANTENTZE-ZERBITZUA

1.- Kontratuaren xedea.

AGIRI HONEN HELBURUA DA BBUP-EN KUDEAKETA KOMERTZIALAREKIN LOTUTAKO XML FITXATEGIEN EGUNGO KUDEAKETA-SISTEMAREN MANTENTZE-LANAK KONTRATATZEA

2.- Mantendu behar den produktuaren deskribapena

Gaur-gaurkoz, BBUPen lan-prozedurak SERES eFactura eta SERES SII produktuetara egokituta daude, eta horien bitartez egiten da BBUPen kudeaketa komertzialak sortutako XML fitxategien kudeaketa.

3.- Zerbitzuen ezaugarri teknikoak:

Laguntza teknikoa honako hauen bitartez emango da: telefono bidezko kontsulta, posta elektronikoa edo hornitzailearen web-aplikazioa.

Zerbitzuaren mantentze-lanen artean, besteak beste, hauek egongo dira:

- Aplikazioak edo horien moduluak bertsio berrietara eguneratzea.
- Nahitaez bete beharreko legezko xedapenen ondoriozko eguneratzea.
- Produktuaren gorabeherak edo akatsak zuzentzeko mantentzea.
- Programek gaizki funtzionatzeak eragindako balizko datuen hutsaltasunen berrikuspena eta zuzenketa.
- Aplikazioen funtzionamendurako euskarri eta laguntza teknikoa.

4.- Aurkeztu beharreko agiriak.

Mantentzea 3. atalean azaldu bezala egiteko aukera izan beharko du enpresa lizitatzaileak. Horretarako, produktu horiei buruzko laguntza emateko eta mantentze-lanak egiteko gaituta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Bilbo, 2025eko martxoaren 19a

Kontratuaren arduraduna

Izpta.: Félix Gómez Rozalén

Informatikako zuzendariordea

Izpta.: José Luis Unzueta